

Lehenengo eguna

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatu

1- Lehen inpresioa

Begiratu argazki honetako pertsonaiei



Zer itxura hartu diezu lehen begiratuan? Aukeratu pertsonaietako bat...

Antton



Josu



Izaro



Amaia



...pintxo-potera joateko

...mendi-buelta bat emateko

...ikasgelan zure ondoan esertzeko

- *Nik nire ondoan esertzeko Antton aukeratu dut. Serioa dela ematen du baina oso interesgarria dirudi.*
- *Nik pintxo-potera joateko, dudarik gabe, Izaro aukeratu dut. Parrandazale itxura du.*

ITXURA DESKRIBATZEKO ADJEKTIBOAK

Sinpatikoa	Txolina
Atsegina	Intelektuala
Alaia	Guapoa
Bromazalea	Gogaikarria
Txoriburua	Petrala
Langilea	Gozoa
Umila	Serioa

GOGOAN HARTU:

Euskaraz adjektiboek ez dute genero-markarik, ez eta gaztelaniazko mailegu badira ere.

- *Josuk sinpatikoa dirudi.*
- *Amaia oso serioa da.*

2- Adituak dioena

Entzun irratsaioa eta esan ondorengo esaldiak bat datozen ala ez bertan esan dutenarekin.

- Lehen inpresioa begiek egiten duten azterketa azkar bat da.

- Egia
- Gezurra

- Lehen inpresio hori gure barruan sortzen den mekanismo inkontziente bat da.

- Egia
- Gezurra

- Garai batean garrantzitsua izan zen lehen inpresioa sortzen duen mekanismo psikologiko hori.

- Egia
- Gezurra

- Epaiketa hori egiteko gure garunak 30 segundo behar ditu gutxienez.

- Egia
- Gezurra

- Gure garunak ematen diogun informazio guztia jasotzen du –itxura, ahotsa...– eta loturak egiten ditu gero epaitzeko.

- Egia
- Gezurra

- Lehenengo harremanetan, ez da egokia besteari zuzen begietara begiratzea, urduri jarri dezakegulako.

- Egia
- Gezurra

Jarraituko dugu adituak zer dioen entzuten. Ondoren, aukeratu erantzun egokiena.

- Garunak bere azterketa egiterakoan, honako zein elementuri ez dio erreparatzen?

- Itxurari
- Transmitzen dugun segurtasunari
- Mugimenduei

- Itxura ona emateko, adituek aholkatzen dute...

- eskurik ez ematea konfiantza pixka bat izan arte.
- eskua suabe eta denbora motzean ematea.
- bestearen eskuari ganoraz ematea.

- Pertsona batez egiten dugun lehenengo inpresio hori...

- betirako da eta zaila da aldatzen.
- denborarekin aldatu egiten dugu, zorionez.
- gerora batzuek aldatzen dute eta beste batzuek ez.

Elkarrizketatik hartutako esaldi batzuk ekarri ditugu hona, baina hitz horiek kendu ditugu zuk jartzeko. Osatu esaldi hauek hitz egokiena aukeratu eta bere hutsunera arrastratu.

Irribarre / izaera / eskua eman / ahots / burmuin / epaiketa /
begirada / zorrotz / itxura / jestu

1. Lehen inpresioa egiten dugun azkar bat da pertsona berri bat ezagutzen dugunean.
2. 30 segundo da ak erabiltzen duen denbora azterketa egiteko.
3. Horregatik esaten dugu garrantzitsua dela aurpegiarekin zer jartzen dugun, edo a nola erabiltzen dugun.
4. Gaur egun gure janzkerak edo gurek asko esaten du.
5. Oso inportantea da , besteen begietara begiratzea.
6. Askok laguntzen du batekin hitz egitea.
7. Beraz, behar baldin badugu, ez ukitu bakarrik, baizik eta sendo hartu.
8. Lehen inpresioarekin geratu edo ez zerikusirik handia dauka zurerekin.
9. Jakina, a baldin bazara, gai honetan ere horrela jokatu duzu.



Lehen inpresioarekin gelditzen al zara? Pentsatu pixka batean eta hitz egin beste batekin gai honi buruz. Galdera hauetaz ere hitz egin dezakezu:

1- Pertsona bat ezagutzen duzunean, zeri erreparatzen diozu?

- janzkerari
- itxurari
- begiradari
- irribarreari
- izaerari...

2. Lehen inpresioarekin geratzen zara edo gerora aldatu egiten duzu?

Hitz egitean, holako esaldiak erabili ditzakezu:

- *Nik begiradari ematen diot garrantzia, bere begiradak zer esaten didan.*
- *Nik, berriz, izaerari: ea lasaia den....*
- *Nik uste dut lehen inpresioa ez dela hain garrantzitsua. Askotan gertatzen zait hasieran pentsatzea pertsona bat, adibidez, oso serioa dela eta gero ez da horrelakoa.*
- *Ba, nik gutxitan aldatzen dut lehenengo inpresio hori.*

3- Lehendabiziko eguna erredakzioan

Ikusi bideoaren lehen pasartea, eta asmatu zein aitzakia esan duen Amaiak.

- Lo hartu du
- Autobusa galdu du
- Iratzargailuak ez du jo
- Galdu egin da
- Ez du behar zuen denbora ondo kalkulatu
- Errepidea itxita zegoen istripu bat izan delako



Ikusi osorik bideoa eta lotu pertsonak eta zereginak.



Cristina

Asier

Ane

Amaia

Irati

Izaro

Informatikaria

Administraria

Gizarte-gaiak

Argazkilaria

Kultura

Kirol-arloa

4- Narrazioa lehenaldian

Asierrek zein itxura hartu dio Amaiari? Irakurri Asierren pentsamendua eta jarri arreta aditz-egituretan. Nola ari da kontatzen ikusten duena?



Ondo hasi da! Ordenagailua pizteko gauza ere ez da. Etorri eta lehen egunean eskean hasi da! Itxuraz neska moderno horietakoa ematen du. Bizikletaz etorri da, baina berandu. Ez omen du ondo kalkulatu... Ja! Hizketan pedante-xamarra dirudi. Tira! Lehen inpresioa izango da. Izarok aldizkariko martxa zein den azaldu dió. Arretaz entzun du. Baina urduri jarri da gaur elkarrizketa bat duela jakin duenean. Mmmm! Errazegi urduritu da. Baina, sinpatikoa eta irribarretsua ematen du. Hemendik aurrera ikusiko dugu...

Zer gertatu da?	Zer gertatu zen?
<p>ORAINALDI BURUTUA (joan da, ikusi du...)</p> <p>Gaur, aste honetan, aurten, goizean, orain... gertutakoa kontatzeko erabiltzen dugu. Hizketa-uneko denbora-tarte barruan gaudenean.</p> <p>Honela osatzen da: PARTIZIPIOA + Aditz laguntzailea orainaldian</p> <p><i>Adibidez:</i> Istripua gaur gertatu da:</p> <p>Autoak aurrez aurre jo du zuhaitza, atzeko autoak segidan zetozenez, bat-batean gelditu dira eta kolpea ikusit dutenean laguntzera joan dira.</p>	<p>LEHENALDI BURUTUA (joan zen, ikusi zuen...)</p> <p>Iraganeko gertaerak kontatzeko erabiltzen dugu: atzo, garai batean, hona etorri aurretik, txikia nintzenean... gertutakoa kontatzeko.</p> <p>Honela osatzen da: PARTIZIPIOA + Aditz laguntzailea lehenaldian</p> <p><i>Adibidez:</i> Istripua atzo gertatu zen:</p> <p>Autoak aurrez aurre jo zuen zuhaitza, atzeko autoak segidan zetozenez, bat-batean gelditu ziren eta kolpea ikusit zutenean laguntzera joan ziren.</p>

Data hauek irakurri eta zuri gertatutako zer edo zer idatzi eta ondoren aukeratu bitxiena eta zure ikaskideari azaldu.

Duela bost urte.....

Azken Urtezahar gaua.....

Zure azken urtebetetzea.....

Joan den urteko abuztua.....

Adibidez: Duela bost urte, Berlinera joan ginen bizitzera. Nire alaba txikia jaio zen eta Alemaniara lan bila joatea erabaki genuen.

5- Lehenengo laneguna

Ikusi bideoaren bigarren atala, "Izaro eta ospakizunak". Izarok eta Amaiak lehen elkarrizketan izandako esperientziaz ari dira. Erantzun ondorengo galderei.

Amaiaren lehenengo eguna nola joan da?

.....

Garai batean Izarok egunkarian izandako lana nolakoa izan zen?

.....

Eta beste lagun hauek nolako esperientzia izan zuten lehen lanegunean? Azpimarratu nola sentitzen ziren adierazten duten esamoldeak.

Luis Mari

22 urte nituen lanean hasi nintzenean. Orduan bukatu nituen erizain-ikasketak. Urduri samar nengoen, baina nire lehen laneguna oso lasaia eta atsegina izan zen. Poz-pozik nengoen, ilusioz beterik. Harrera ezin hobea egin zidaten, gainera, zerbitzuko lankide guztiek.

Marta

Ez naiz gogoratzen ondo negua ala uda zen, baina bai oso urduri nengoela. Hasieran erabat galduta sentitu nintzen: ez nuen inor ezagutzen, ez nekien nora jo zerbait behar nuenean, eta erdi lotsatuta hurbiltzen nintzen ingurukoengana. Berehala konturatu nintzen, zorionez, lankide bikainak nituela ondoan, dena erraztu zidaten-eta. Eskerrak horri!

Santi

Orain dela 10 urte hasi nintzen lanean. Dar-dar batean heldu nintzen eta, gainera, berandu. Egia esan, ez daukat oroitzapen onik. Lana oso arrotza zen niretzat, eta lankideek ez zidaten asko lagundu. Neka-neka eginda bukatu nuen eta nahiko atsekabeturik izan nuen harrerarengatik.

Idoia

Ostirala zen, urriaren lehena. Gasteizera joan behar nuen, eta ez nuen ezagutzen. Hainbat datu eman eta nire zerbitzura eramanez ninduten. Harrera ona izan bazen ere, galduta ibili nintzen: arrotza zen dena niretzat. Poliki-poliki ikasten joan nintzen eta konfiantza hartzen.

Maria

Neguko egun batean hasi nintzen lanean. Egun hura gogoratzen dudanean, konturatzen naiz ez duela zerikusi handirik gaurko errealitatearekin. Garai hartan ez zegoen idazteko makina elektrikorik ere, eskuz idazten genuen, ez genekien zer ziren ordenagailuak.

Irakurri berriro oroitzapen horiek, oraingoan arreta gehiagorekin, eta osatu taula. Kasu batzuetan, aukera bat baino gehiago dira zuzenak.

	Luismari	Marta	Idoia	Santi	Maria
Ez dauka oroitzapen onik.					
Orduko egoerak eta oraingoak ez daukate antzik.					
Dena arraroa egin zitzaion.					
Ikasketak bukatu eta berehala aurkitu zuen lana.					
Berandu iritsi zen.					
Duela hamar urte hasi zen.					
Lankideek ez zioten asko lagundu.					
Ez du gogoan noiz izan zen.					



Ondorengo esaldietan dituzu aurreko ariketetako testuetan azaldu diren izen eta aditz batuk. Osatu esaldiak, falta den hitza hutsunera mugituz.

iritsi / oroitzapen / harrera / lanean / egin / pozik /

neka-neka / nengoen / lorik egin gabe / ibili

Neguko egun batean hasi nintzen _____.

Urduri _____.

Harrera ona _____ zidaten.

Galduta _____ nintzen.

Berandu _____ nintzen.

Ez daukat _____ onik.

_____ nengoen.

_____ eginda bukatu nuen.

la _____ joan nintzen.

_____ ona izan nuen.

6- Asko aldatu dira laneko kontuak

Lehenengo ariketetan, Mariak kontatu du asko aldatu dela laneko panorama. Begiratu zer esaten duen:

"Neguko egun batean hasi nintzen lanean. Egun hura gogoratzen dudanean, konturatzen naiz ez duela zerikusirik handirik gaurko errealitatearekin. Garai hartan ez zegoen idazteko makina elektrikorik ere, eskuz idazten genuen, ez genekien zer ziren ordenagailuak".

Kontatu zure inpresioa: lehendik hona, zertan aldatu da laneko egoera edo lan egiteko modua?

- Orain dena ordenagailuarekin egiten dugu, lehen ez zegoen horrelakorik.
- Lehen informazio guztia liburuetatik ateratzen genuen; orain Internetetik.
- Lehen orain baino lasaiago egiten zen lan.

7- Kontu-kontari

Eta zuk? Gogoratzen al duzu zure lehenengo eguna euskaltegian? Bestela, horrelako esperientziarik ez baduzu, ekarri gogora zure lehenengo egun bat eta osatu kontaketa galderei erantzunez. Ahoz azaltzen hasi aurretik, osatu taula.

	Noiz eta non gertatu zen?	Norekin zeunden?	Zer gertatu zen?	Nola sentitu zinen?
Lehenengo eguna euskaltegian...				
Lehenengo eguna eskolan / unibertsitatean...				
Lehenengo akanpada...				
Lehenengo bidaia gurasorik gabe...				
Lehenengo hegaldia...				
Lehenengo Sanferminak...				

Elkartu talde txikitan egun berdina aukeratu duzuenen artean eta kontatu elkarri zer gertatu zen.

Adibidez: Nire lehenengo akanpada Zaldibartxo putzuan izan zen, duela hogeita bost bat urte. Orduan nerabea nintzen eta lagun kuadrillarekin joan nintzen...



2- Adituak dioena

Erantzunak

Lehen inpresioa begiek egiten duten azterketa azkar bat da.

Egia Gezurra

Lehen inpresio hori gure barruan sortzen den mekanismo inkontziente bat da.

Egia Gezurra

Garai batean garrantzitsua izan zen lehen inpresioa sortzen duen mekanismo psikologiko hori.

Egia Gezurra

Epaiketa hori egiteko gure garunak 30 segundo behar ditu gutxienez.

Egia Gezurra

Gure garunak ematen diogun informazio guztia jasotzen du –itxura, ahotsa...– eta loturak egiten ditu gero epaitzeko.

Egia Gezurra

Lehenengo harremanetan, ez da egokia besteari zuzen begietara begiratzea, urduri jarri dezakegulako.

Egia Gezurra

Garunak bere azterketa egiterakoan, honako zein elementuri ez dio erreparatzen?

Transmitzen dugun segurtasunari

Itxura ona emateko, adituek aholkatzen dute...

bestearen eskuari ganoraz ematea.

Pertsona batez egiten dugun lehenengo inpresio hori...

gerora batzuek aldatzen dute eta beste batzuek ez.

Itxura garrantzitsua da

1. Lehen inpresioa egiten dugun (**epaiketa**) azkar bat da pertsona berri bat ezagutzen dugunean.
2. 30 segundo da (**burmuin**)ak erabiltzen duen denbora azterketa egiteko.
3. Horregatik esaten dugu garrantzitsua dela aurpegiarekin zer (**jestu**) jartzen dugun, edo (**ahots**)a nola erabiltzen dugun.
4. Gaur egun gure janzkerak edo gure (**itxura**)k asko esaten du.
5. Oso inportantea da (**begirada**), besteen begietara begiratzea
6. Asko laguntzen du (**irribarre**) batekin hitz egitea.
7. Beraz, (**eskua eman**) behar baldin badugu, ez ukitu bakarrik, baizik eta sendo hartu.
8. Lehen inpresioarekin geratu edo ez zerikusi handia dauka zure (**izaera**)rekin.
9. Jakina, (**zorrotz**)a baldin bazara, gai honetan ere horrela jokatu duzu.

3- Lehendabiziko eguna erredakzioan

- 1. Erantzuna: Ez du behar zuen denbora ondo kalkulatu.
- 2. Erantzunak: Cristina / kirol arloa; Asier / informatikaria; Ane / kultura; Amaia / gizarte-gaiak; Irati / administraria; Izaro / argazkilaria.

5- Lehenengo laneguna

- 1.- Galderen erantzuna: ondo egon dela dio Izarok, eta elkarrizketa bikain atera zaiela. Amaiak oso urduri zegoela azaldu du.
- 2.- Galderaren erantzuna: egunkari batean egiten zuen lan eta Euskal Herri osoan ibiltzen zen. Oso-oso nekagarria zen.

	Luismari	Marta	Idoia	Santi	Maria
Ez dauka oroitzapen onik.				X	
Orduko egoerak eta oraingoak ez daukate antzik.					X
Dena arraroa egin zitzaion.			X		
Ikasketak bukatu eta berehala aurkitu zuen lana.	X				
Berandu iritsi zen.				X	
Duela hamar urte hasi zen.				X	
Lankideek ez zioten asko lagundu.	X				
Ez du gogoan noiz izan zen.		X			

Neguko egun batean hasi nintzen (lanean)

Urduri (nengoen)

Harrera ona (egin) zidaten.

Galduta (ibili) nintzen.

Berandu (iritsi) nintzen.

Ez daukat (oroitzapen) onik.

(pozik) nengoen.

(neka-neka) eginda bukatu nuen.

la (lorik egin gabe) joan nintzen.

(harrera) ona izan nuen.